



Biba zorrien izurritea! .- Bizkaiera polit eta goxoan, Joseba Sarrionandiaren mikroipuinetan oinarritutako lana izan zuten ikusgai lasarteoritarrek ostiral iluntzen kultur-etxean. Markina-Xemeingo herritar talde amateur batek eskainitako obraren izena da "Biba zorrien izurritea". Ander Lipus antzerkigile ezagunak zuzendutako antzerkia. Istorio laburrak eta elkarren artean oso ezberdinak antzeztu zituzten. Pieza gehienak umorezkoak izan ziren, kapsula txikitari, eta jendea barrez leheratu da antzerkiko zenbait unetan. Dena den, izan da zenbait metafora eta momentu sakonagorik ikus-entzuteko aukerarik ere. Pieza arteko transizioak musikaz girotu dituzte bi musikaririk gitara, danborra era trikitixaren laguntzaz. Hiru ate eta bi hamaila txikirekin girotutako oholtzaz gain, euren lana egiteko Manuel Lekunako areto guztia erabili zuten hamaika aktoreek. Ikusleen txalo-zaparrada jasota, kalejira eta irrintzi artean utzi zuten oholtzaz bizkaitarrek. Udaleko kultura sailak antzerki amateurari egingo dioten artearen adibide izan da gaurkoa. Kukuka antzerki eta dantza eskolarekin elkarlanean bultzatu du EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak proposatutako zirkuitu amateurren egitasmoa. Bestalde, drama eta umorea nahastu zituen "Putopia" antzerkia ikusteko aukera izan zen Zulo aretoan.

4 EUSKARA Belaunaldi ezberdinetako herritarren bizipenak

Euskararen erabileraz gehiago jakin asmoz hainbat herritarren hitz egin dugu. Ikastolaren sorrera bultzatu zuten haietatik gaur egungo gazteetara arte, perflit eta esperientzia ezberdinetako herritarrekin izandako solasaldiak bildu ditugu herritarrek euskararekiko nolako jarrera duten jakiteko.

5 GABONAK Santo Tomas jaia larunbat arratsaldean Okendo plazan

Gabonetako lehenengo hizordua Santo Tomas jaia izango da. Tiakunek antolatuta, Okendo plazan ez da janik eta edanik faltako larunbatean 17:30etik aurrera. Telleri baseriko txerria, taloak, bertsolariak eta munduko dantzak ikasteko aukera izango den erromeria prestatu dituzte.



**Ostiralean
abenduren
20an, ez da
TXINTXARRI-rik
argitaratuko.
Abenduaren
23an izango da
hurrengo
zenbakia zuen
etxeetan,
Gabonetako
berezia.**

gandarias uribe

ortopedia sekzioa

GABONETAN
osasuna oparitu

Eguberri zoriontsuak
ta urte berri on !

Farmazia
Parafarmazia
Ortopedia

Inigo de Loloia 9
20160 Lasarte - Oria
Tel.: 943 019521
farmaortopediagaur@gmail.com

RP5 65/13

CARNICERIA
ARANZABAL

HARATEGIA

Etorri gugana
eta
probatu gure kalitatea!

Behi xerra
9,95 /kiloa.
Kilo batekin,
oilasko bat OPARI

JAIZKIBEL PLAZA 11
20160 LASARTE-ORIA • TEL.: 943 365156

Adituak dio



Iñaki Arruti

Normalena, guraso dena ez gertatu izana litzateke. Besteak beste, 40 urteko diktaduraren eta emigrazio-uholde ikargarri baten ondorioz, katea eten izana litzateke normalena.

Normalena, oso gutxi izatera iritsi ziren guraso eskaldun haiek orain 50 urte beren seme-alabak herriko eskola "nazionalera" bidaltzea zen.

Normalena, guraso eskaldun haiek gaztelaniaz zuzentzen zitzaizkien seme-alabei gaztelaniaz erantzutea izango zen. Iraultza pedagogiko bat egiten ahalegindu ziren irakasle haiek egin zutena ez zen oso normala izan.

Normalena, mendizale-elkartere batekoak ikastola osatzen ez laguntzea izango litzateke. Normalena, beren denbora librean gau-eskolan musu-truk euskara irakasten ez ematea izango zen. Ehunka pertsona hainbat urtez, asteen 10 orduz, eskaltregira joatea ez da oso normala.

Normalena, Euskal Herriatik kanpo jaio eta euskararik ez zekiten guraso haiek beren seme-alabak beren hizkuntzan eskolatu nahi izatea izango zen. Ia denak erdaldundu ziren ikastetxe haietako irakasle gehienek euskara ikasteke, eta irakasleek, egindako ahalegin izugarria oso normala ez da.

Normalena, normala ez den hizkuntza bat normaldu nahian herriko eskola-elkartean lanean aritu ordez, beren denbora librean TVEko programak eguneroko hiru orduz ikusten aritzea litzateke...

Normala ez dena da orain 50 urte euskara, euskaldunok, herrian galarzorian egotea eta orain, hala dio "Euskara eta gazteak Lasarte-Oria III" liburua, 25 urtez azpiko gazte gutxiak euskaldunak izatea.

Normala ez dena da, gazteek beren artean euskara ia ezer ere ez erabiltzek, gazteen erdiki beren artean beti edota gaztelania baino gehiagotan euskaraz aritzea irristea. Eta, hala ere, oinak lurra eta inguratzen gaituen munduari begiratu, urte batzuk barru gazte gehienek beren artean gaztelaniaz, edo ingelesez, hitz egiten bukatzea izango da igual normalena, ezta?

Normalena ez litzatekeena da gazteek beren arteko harenamun gero eta euskaldunagoak izatea lortzeko zer eta nola egin nahi duten amesten hastea.

Erdaratik euskarara

Datu pozgarriak dira, bistan da, "Euskara eta gazteak Lasarte-Oria III" liburua eman dituenak. Iñaki Arruti bere zutabean dioen bezala, normala ez zena gertatu da. Gure herrian euskara hiltzera kondenatuta zegoela ziuridienek, biziaretea bakarrik ez, indartzea lortu du azken ikerketek emandako datuen arabera. Benetan miresgarria da hori, batez ere Lasarte-Oria bezalako herri erdaldundu batean.

Norbanako eta kolektibo askoren lana dago datu positibo horien atzean. Ikastolak sortu zituzten lehenengo guraso ausart haietatik, gaur egun euskaltegiaren euskara ikasten ari diren euskaldunberri guztietara arte. Denek jarri dute euren altxoa euskara bihotzetik herriko plazetara atera dadin.

Ez dago dudarik, asko erabiltzen dugu euskara lasarte-

rrok, baina gehiago ere erabili genezake. Paperean datu onak badira ere, kalera, tabernara, entrenamenduetara jaitsi beharra dago agian kezkarako zantzuak oraindik badaudela jabetzeko. Ez helduen kasuan bakarrik, gazteok erdara barra-barra darabilte. Eta hori tamalez, gustatu ala ez, horrela da.

Euskara gaztetxo guztiek ezagutzen dute, primeran. Halaber, D eredua herrian orokortu denetik, euskararen erabilera gazteen artean %38a izatea lortu dugu. Zein da hurrengo urratsa portzentaje hori hobetzeko? Zer gehiago egin dezakegu? Gure esku bakarrik al dago? Denon artean erantzun beharrek galdera da, eta ziurriek erantzun bat baino gehiago izan dezake. Zalantzarik ez da, herriko eskaltzelek horretan lanean jarraituko dute.

Hitz eta pitz

Gazteek euskara erabiltzen dutela uste duzu?



Julen Fernandino eta David Corchero

Iruditzen zaigu gazteen artean ez dela nahikoa hitz egiten. Agian duela hamar urte baino gehiago hitz egiten da euskara herrian. Gure ustez, orain helduen artean bai entzuten da asko euskara. Gure kasuan etxean gaztelaz hitz egiten dugu gurasoek gutxi dakitelako eta lagun batzuek ere batzuetan gaztelaz egiten dugu.



Beñat Arroyo eta David Vega

Euskara hurbileko kuadrilletan, gazteen artean ez da nahikoa erabiltzen. Egia da gure esku dagoela euskara gehiago hitz egitea baina pertsona batzuekin ohitura hartzen da gaztelaz eraldituko eta zaila da hori aldatzea. Hala ere, lagunekin batez ere euskaraz hitz egiten dugu eta etxean egin ez arren, kalean erabiltzen dugu guk.



Alejandra Ribeiro

Nik behintzat eskolan bakarrik hitz egiten dut euskaraz. Jaiotzez portugaldarra naiz eta etxean portugesez hitz egiten dugu. Euskara bereziki zaila egiten zaiz gaztelaz erekin aldatuz horretatik joera daukat lagunekin, eskolakoak izanda ere, gaztelaz hitz egiteko. Gando ulertu eta hitz egiteko gaitasuna dut euskaraz baina hitz egiteko garaian ez naiz gaztelaz bezain trebe sentitzen.



Josu Olmos

Iruditzen zait herrian orokorren bai hitz egiten dela euskaraz baina agian ez nahikoa. Izan ere, gure adineko guztiek, 18 urte ditut, dakigu txikitatik gehienok euskaraz ikasi dugulako. Nire kasuan, lagunaren artean euskaraz hitz egiten dut normalaen eta herriko denda, taberrietan sartzen naizenean lehenengo hitza beti euskaraz egiten dut.



Ikastolako ikasleak 80. urtean Olenitzerenon martxakiak harro erakusten. LANDABERRI

Iruditzen

Ikastola abiapuntu

Landaberri ikastola herriko guraso eta hainbat eragileren ekimenez sortu zen 1966. urtean. 1976an Pablo Garaikotxea eraiki arte, hainbat lekutan kokatu ziren ikasgelak. Andre Joakina enea, Uistin baserria... Ikastolako lehenengo ikasle horiek gehienek, guraso euskaldunak zituzten eta haien nahia zen euren seme-alabek euskaraz ikasteko aukera izatea. Frankismo garaian hainbat komeri izan zituzten, lehenengo ikasleek gogoratuzen dute ondo nola inspektoreak etorri behar zirenean gelaz aldatu, txinto-txinto portazteko esku eta orokorren giroa zatorratzen zen irakasleen artean.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



GFAKO Kultura eta
Euskararen Departamendua

Txintzarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttatum Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 850/943 371 748

G-20407557

Legetze gordailua:
55513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia:

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakitako: 7800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Ezagame, Maider Azumendi, Jon Alluna E.
txintxarri@txintxarri.info
Arantza Artola
publizitatea@ttatum.com
administratzailea@ttatum.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorla Lasa,
Ane Labaka, Maiku Anubi, Aiser Oñizola, Jone M. Hernandez,
Oihana Salazar, Peko Aizpitarte,
Edu Galardi

Informazioa:

Xabier Aramadiz

UDALA

Kulturartekotasuna Gabonetan

Aniztasun Astearen baitan denetarikoko ekintzak izango dira

Udala herriko elkarteekin antolatuta du Aniztasunaren astea abenduaren 21etik 28ra. Honen baitako ekintza guztiak Okendon jarriko den karpa batean egingo dira. Munduko gastronomia, dantza eta musikak izango dira besteak beste egun hauetan protagonista. Herritarrei parte hartzeko deia egiten zaie udaletik.



Buruzpeko gurasoek aniztasunaren festa antolatuta zuten martxoan.

TXINTXARRI

Aniztasunaren astean hainbat ekintza gozatzeko aukera izango da. Egitarauaren barruan sartu dira ohiko hitzorduak diren Itakunek antolatzen dituen Santo Tomas jaia eta Olentzeroren etorrera jaialdia baina badakira ekintza berriezaleak ere.

Abenduaren 22an, Sasoea-Zumaburu eskolako gurasoek gizonentzat futbol partida antolatuta dute kiroldegian 11:00etan eta emakumeentzat boleibol norgehiagoka 10:00etan.

Egun honetan Sendokiko elkartearen eskutik Gabonetako azoka berezia 11:00etatik aurrera izango da. Honetan herriko dendek, zein artisauen produktuek eta elikagaiak erosteko aukera izango da. Karpan 12:00etatik 14:00etara Banaiz Bagareren Banaija musika egitasmoarekin musika eta kantu emanaldi izango da ere.

Abenduaren 23an, 16:30ean Ostadarrekoe

antolatuta dituzte ekintzak. Oh! bezala herri kiroletan aritu ahal izango dira etxeko txikiak baita gurasoak hala nahi badute.

Jarraian, 19:30ean Lasarte-Oriako aniztasunari buruzko "bideo parte hartzailearen" emanaldia eta kultur arteko topaketetako bideoaren proiektioa izango da.

Munduko gastronomia

Abenduaren 26, 27 eta 28an haur zuten helduek herrialde ezberdinetako sukaldaritzak ikastaroa egin ahal izango dute.

Ostegunean, abenduak 26, 10:00etatik 11:00etara Nikaraguko sukaldaritzan trebatu ahal izango dira umeak 11:30etik 13:00etara beriz, helduen txanda izango da.

Ostiralean txikiak sukaldaritzak italiar ikastaroa egin ahal izango dute eta helduek Mexikoko jakiak prestatzen ikasi ahal izango dute. Larunbatean ordea, Afrikako sukaldaritzaren txanda izango da.

Helduek 5 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzeko eta umeek 2,5 euro. Aurrez izena eman behar da gastrokulturala@gmail.com-era mezua bidalita.

Ostegun eta ostiralean, 18:30etik 22:00ra nazioarteko pintxoak dastatzeko parada izango da eta larunbatean pintxoekin batera, egun honetan 12:00etatik 14:00etan, Mikel Bermejoeren bakarriketa egongo da.

Ostiralean, 27an, "Gu, jatorri antiz, herri bat" dokumentalaren proiektioa izango da karpan aratsaldean.

Larunbetean 12:00etatik 14:00etara Eliza evangeliokoaren txanda izango da. Hauek euren kantu, musika eta kultura emankizuna egingo dute Okendoko karpan, 16:00etatik goizeko 1:00ak bitarte Xpressionek-ek antolatutako munduko musika desberdinez osatutako kontzertuak egongo dira.

Egun honetan bertan 20:00etan, Aniztasunaren ekitaldi berezia izango da eta Kukuka dantza taldearekin soka dantza.

Nogales andoaindarrek aurteko duten egitarauak hiru zati izango ditu.

Lehenengo zatietan bi musikagile handien lanak taularatu dituzte, Pergolesi eta Haendel. Hala nola, Pergolesiren "Stabat Mater" obrako "Quoe moerebat", "Eia mater" eta "Fac ut portem" zatia edo Haendel-en "Lascio ch'io pianga" eta "Ur musika"-ko hainbat zatiz gozatzeko aukera izango da Mariñe Nogalesen aholtean.

Kontzertuari amaiera emateko, Gabon doinuak izango dira. "Silent Night", "Adeste Fideles", "Al Nacimiento del hijo de Dios" edo "O holy

night" kantei esker Gabonak egun batzuetako aurrerapenarekin iritsiko dira komentura.

Brigitarren organoa

Doinu hauez guztiez gain, Ama Brigitarren komentuko organoa bakarrik entzuteko aukera izango da emanaldian zehar, Ana Belen Garciaik hiruzpalau lan bakarka eskainiko baititu.

Komentuko organoa 1915. urtean eraiki zuten Azpeitian Ama Brigitarren eskaerari erantzunez.

Organo honen doinuak azkenik apirilaren entzun ziren Ana Belen Garcia berak Udalak antolatutako Musika

MUSIKA ESKOLA

Gabonetako kontzertua ostegunean

Lasarte-Oriako Udala Musika eskolako Gabonetako kontzertua eskainiko du ostegunean Manuel Lekuona kultur-etxean 19:00etatik aurrera.

Kontzertu honetan instrumentu desberdinetako ikasleek eskutik Gabon kanta sorta ederra entzuteko aukera izango da. Hauek doinu klasikoetatik modernoagoetarako ibilbidea egingo dute.

IPIUIN-KONTALARIA

Ipiuinetaz gozatzu

Lasarte-Oriako haur-liburutegian etxeko txikiak ederki gozatu zuten asteazkenean ipuinaren orduan.

Pello Añorga ipuin kontalaria berriro ere maleta ipuinez beteta ekarri zuen. Haur guztiak adi-adi jarraitu zituzten hainbat pertsonaien istorio eta xebebrekeriak. Esate baterako, katu triptonarien istorioan kantu, dantza eta algarra ugari izan ziren liburuetan.



GAZTEA PARODY

Lasarteko Kukukiak bozkatu

Gazte irriatik antolatzen den Gaztea Parody lehiaketan berriro ere, lasarteoritarren bideo bat dago lehian. Dinbi Banda batukadak iaz garaipena eskuratu zuen "The Lazy Song" abestiarekin eta oraingoan Lasarteko Kukukiak taldeak saria eskuratzeko saiatuko da.

Lasarteko Kukukiak taldeko bi kideek Pink abeslariaren "Try" bideokliparen koreografia dantzatzen dute bideoan.

Bozka epea ireki da eta ostegunera arte ahal diren bozka gehienak eskuratu nahi ditu taldeak hurrengo fasera iristeko. Eguneko bozka bat eman daiteke. Animatu eta bozkatu!

GABONAK

Xixukoren bisita ikastoletara

Lasarte-Oriako ikastetxeetan bisita berezi bat izan zuten lehengo astean, Xixuko ahaltearena.

Ezusteko ederra hartu zuten askok Olentzeroren laguna atetik sartzen ikusterakoan. Xixuko etxeko txikiak Olentzeroren etorreraren berri emateaz gain, beste eginizun bat ere izan zuten. Olentzerok haurrentzat prestatutako eskutitz pertsonalitatea banatzea.

Behin eskutitza beteta, abenduaren 24ean, Olentzero edo Xixukori emateko aukera izango dute Lasarte-Oriako haurrek. Bitartean haur guztiak txintxoak izateko gogoratu ziren Xixuko ahalteak.



Ahots eta organo kontzertua ostiralean

Kalitate handiko kontzertuak emango die hasiera Danok Kide elkarteak antolatzen duen 9. Musika Topaketari. Ana Belen Garcia organista eta Mariñe Nogales mezzo-sopranoaren eskutik ahots eta organo kontzertua izango da ostiralean, abenduaren 20an, arratsaldeko 19:30etatik aurrera, Ama Brigitarren komentuan.

Kontzertu berezia izango da gainera komentura hurbiltzen diren herritarrek bertako organoa entzuteko aukera izango dute eta.

Egitaraua

Ana Belen Garcia eta Mariñe



Apirillean jo zuen Ana B. Garciaik Ama Brigitarren komentuko organoa azkenean.

Astearen barruan eskaini zuten kontzertuan. Baina orduan jakitera eman zutenenez, instrumentu hau ez zen 1991. urteetik jotzen.

Andoingo organistak apirillean aipatu zuenez, Ama Brigitarren komentuko organoa "soinu kalitate oso onekoa" da.

Gazteen %94,4k ulertzen du euskara

Lasarte-Orian euskararen erabilera gazteen artean hazi dela frogatu du ikerketak

Lasarte-Orian euskarak izan duen bilakaeraz hausnartu nahi izan dugu udaleko euskara zerbitzuak kaleratu berri duen "Euskara eta Gazteak Lasarte-Orian III" azterketaren harira. Azken 50 urtetan egoera asko aldatu dela diote zaharrenek. Ez da zaila ordea, Lasarte-Oriara etortako bizilagun berri guztekien euskara apenas entzuten zen kaleetan, abiapuntua hau izanda gertatu den aldaketa izugarria izan da. Besteak beste, herriko bi eskoletan egun D ereduua da nagusi eta 13 eta 24 urte bitarteko lasarteoriatarren ia gehiengoa euskaraz ulertzen du. Belnaldai eta perfil ezberdinetako herritarrengana jo dugu euskararekiko euren esperientzia kontatzeko.

Azterketaren ondorio batzuk:

- Guraso euskaldunak diren, gazteen euskara gaitasuna orain %92koa da eta 2002an, %80 zen.
- Lagunekin beti euskaraz %72k egiten du orain, %50 2002an eta hizkuntza kuttuna euskara da orain %83entzat eta 2002an %73.
- Guraso mistoak direnean, euskaraz egiteko gaitasuna orain %60ak, 2002an %55.
- Beti euskaraz lagunekin orain %34 eta euskara soilik hizkuntza kuttuna %31.
- Gurasoak erdaldunak direnean euskaraz egiteko gaitasuna orain %22ak da eta 2002an %14, beti euskaraz egiten du lagunekin %15ak eta euskara hizkuntza kuttuna du %11ak.



TXINTXARRI

Euskara erabileraz mintzatu dira hainbat herritar. Ikastolaren sorrera bultzatu zen egoera hartatik gaur egun arteko ibilbidean kokatu ditugu herritarrik. Azterketak familiak euskararen transmisioan duen garrantzia frogatu du. Gazte garaian hitz egiten al zuten/dute euskaraz?

Pako Aizpirtate

1960-65 artean Lasartera etorri berria zen. Herriko apaizetako bat izan zen eta ikastolaren sorrera mugimenduan gutxi mugildu zen. Lasartetik, Oria barne, 3.500 biztanle izango zituen. Horietaatik zati handi bat bertakoko ziren. Etxetan gurasoak euskaraz bazekiten eta euren artean hitz egiten zuten. Baina seme-alaba askok ez zuten behar bezala ikasi euskaraz bera eta hitz egiten ez zelako, etxean askotan gurasoak euskaraz bera eta seme-alabak erderaz aritzen ziren. Kalean gazteek ez zuten euskaraz ezertxoere hitz egiten ez eskolan, ez tabernetan, ez gollera joaten zirenen artean, ez kirola etxerakoan...

Kanpotik etortzaileen artean bi multzo zeuden, Lasarte ingurutatik etortzaileko (Igeldo, Usurbil, Orio, Aia, Larraul, Asteasu...) hauek etxean oso ondo gorde zuten euskara baina gazteak giro zeharo erdalduna aurkitu zuten herriko eskoletan, tabernetan, kuadrilletan. Bestaldea, Euskal Herri kanpotik etorriak. Hauek hizkuntza aldetik ez zuten problemarik ez etxean ez kalean. Etxean familiak ekarritakoak berdin jarraitzen zuten han edo herrian. Kalean ere gazteek ez zuten problemarik. Eskolan dena beren hizkuntza zen, elizan, herriko administrazioan etab.

Egoera honek bultzatuta hasi ginen euskara suspertuko zukeen dena martxan jartzen:

mendizaleak, txistulariak, dantza taldeak... eta une horretan ametsa zirudien ikastolaren oniarriak jartzen hasi ginen, andereñoa eta tokia bilatu baita ikastolara joango ziren haurrak bilatzen ere. Egindako esfortzu hark egungo egoerara iristeko bere aldetox jarri zuela uste dut.

Juanjo Erauskin

Ikastolako lehenengo urteko ikasle horietako bat izan zen Juanjo.

Ikastola sortu zenean nik 4 urte nituen, eta etxean eta ikastolako kideekin euskaraz egiten nuen beti. Hala ere, nire uestez kalean ez zegoen eguski girorik, gazteela zen nagusi ia esparru gutzietan.

Ikastolaren sorreratik urte batzuk pasata ere, Lasarte-Orian, kaleko giroa erdalduna zela esango nuke. Gu dagoeneko gazteak ginen eta ikastolako lagun eta sendiekin euskaraz egiten genuen arren, orokorrean, gazteela zen hizkuntza erabiliena.

Gure artean aipatu bezala, beti euskaraz hitz egiten genuen kalean ere. Etxean ere euskaraz egiten genuen guk baina gaztearen ega da kaleko kuadrillan zailagoa zela euskaraz egitea. Askok ez zekiten euskaraz eta azkenean gazteelarako joera hartu genuen. Egun herrian euskara erabiltzen dela iruditzen zait eta egoera beste-lakoa da.

Natalia Nogales

35 urteko herritarren kasuan, giro erdaldunetik abiatu eta euskaraz bizitzera pasa zen.

Gazteetan ez nuen euskaraz hitz egiten. Nire giroa erdalduna zen gutxi. Etxean, lagunak... Hezkuntza egin nahi nuen lan eta geroz eta garrantzia gehiago hartzen ari zen orduan euskara. Hala ere, B ereduari ikasi nuen eta 16 urterekin haurrekin ibiltzen nintzen begirale. Beraiekin

euskaraz, eskolan ikasitakoak erabiltzen nuen inongo belduririk gabe.

Lagunen artean ordea, gazteelaz egiten genuen. Eskolan ere ez nuen egiten, beraz, errea zen esatea: "ez dakit euskaraz". Oso garrantzitsua iruditzen zait zein gogotsu egin zuten lana garai hartan Pablo Garaikoetxea eskolan zeuden irakasle pila: Rosa, Josean, Marije... Disfrutaten genuen euskaraz!

Etxean esan bezala, erderaz hitz egiten genuen, nire gurasoak Extremadura eta Palentziakoak dira baina beti euskararekiko jarrera oso baikorra izan dute. Oso garrantzitsua iruditzen zait etetik mezu baikorra jaso izana. Ahalegina egin zuten ania eta biok euskaraz jakin genezan. Gaur egun beriz, etxean euskaraz egiten dugu. Senarraren familia euskalduna da eta euskara dute ama hizkuntza. Hasieran gogorra izan zen niretzat, batzuetan ez nuelako ondo ulertzen, baina gaur egun ez naiz damutzen nire burua euskaraz aritzeko behartu izanagatik.

Gazte garaian ikastolara joaten zirenak euskaraz egiten zuten, edo behintzat ala iruditzen zizaidan niri. Orain orokorrean gehiago erabiltzen da. Zorionez, A erdurik ez dago eta asko lagunten du. Denek dakite euskara. Kalean gazte kuadrilla asko entzen da euskaraz hitz egiten. Herrian dauden gazte talde asko euskaraz bizi dira. Ni egun euskaraz bizi. Haurrekin eta familiekin egiten dut lan eta egun bezeroen %99 euskaraz bizi diren familiak dira.

Naiara Mujika

26 urteko gazteak etxean bi hizkuntzak izan ditu eta batez ere euskara erabiltzen duela aitortu arren, zailtasunak onartzen ditu lagun kuadrillan gazteelara jotzeko ohitura kentzeko ahaleginean.

Nire egunerokotasunean euskara dut nagusi baina badituzt gazteelaz hitz egiteko ohitura dudan pertsonak. Oro har, lanean euskaraz aritzen naiz beti eta nire aisian beriz, elebiduna naizela esango nuke.

Lagunei dagokionez ere, denetarik erealitateak ditut nire alboan. Arraroa badiudit ere, nire kuadrilla guztiak gure formazio guztia euskaraz jorratu dugun arren, ez dugu beti euskaraz egiten. Egia esateko, gazteelaz aritzeko joera gehiago izaten dugu. Nahiz eta askotan gure buruari hizkuntza ohitura hau aldatzea puztatu diogun konturatu gara erroturiko gauzak aldatzea ez dela hain erraza.

Nire eteko hizkuntza elebiduna da. Hala ere, komunikazioa bermatzearen gatzelania nagusitzen dela esango nuke. Etxeko egoera kalekoarekin alderatu ezker, nire hizkuntza erabileraren ez duela inolako eraginik izan pentsatzen dut. Azkenean, bai euskaraz eta bai gazteelaz primeran moldatzen naiz eta ez dut bata edo bestea erabiltzeko inolako arazorik.

Orokorrean, Lasarte-Orian euskara entzuten dela esango nuke. Ez naiz gehiago hitz egiten dela esatera ausartzen, nire inguruko gaz-

teriarren hizkuntza ohitura euskara izan badaiteke ere, ideia hori herri mailan orokortzea gehiegixto iruditzen zait. Baina, bagara nahi hori daukagu eta hortan dihardugun batzuk eta zier nago saiakera hauek bere fruitua izango dutela.

Paula Uli

16 urteko gazteak euskaraz ikasi eta ia esparru gehienetan euskaraz mintzaten da etxean izan ezik.

Lagunekin betidunik euskaraz hitz egiten dut. Txiki-txikitatik egon gara elkarrekin eta beti egin dugu euskaraz.

Nere etxean ordea, gazteelaz hitz egiten da. Nere aitona-amonak ez dira Euskal Herrikoak eta horregatik nire amari ez zioten euskaraz egiten. Nahiz eta nere aitak euskaraz hitz egiten, etxean gazteelaz hitz egiten da. Nere amak egun ia dena ulertzen du euskaraz baina, hitz egiteko garaian ez da ondo moldatzen.

Nik uste dut gaur egun herrian euskaraz hitz egiten dakien jende asko dagoela, baina gero, kalean lagunekin erabiltzerakoan gazteelaz egiten dela asko. Nik esango nuke euskaraz zertxobait euskeraz erabiltzen dela baina oraindik euskeraz egiten beharko genuke.

ANOBRE TRIBI S.L

KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak ·beira bikoiztuak
segurtasun berarak ·dutxa-itxururak eta irristailuak
·apluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIAN

943 37 17 33- 610 45 93 45

Santo Tomas jaia larunbat arratsaldean

Ttakunek antolatu ohi duen Santo Tomas jaia 17:30etik aurrera Okendon

Baserritar jantzia prest izan behar da larunbaterako izan ere, iritsi da Gabonetako lehenengo hitzordua, Santo Tomas jaia. Ttakunek urtero bezala jaia antolatu du Okendo plazan larunbatean 17:30etik aurrera. Bertan ez dira faltako jana eta edana. Telleri baserriko txerria izango da, bertsolariak eta erromeria. Azken honetan munduko hainbat dantza ikasteko aukera izango da Dabid Egizabal eta Maider Oiartzabalen gidaritzapean.

TXINTXARRI

Santo Tomas egunean larunbatean, jaia izango da Okendo plazan. Ttakun elkarteak ohiturari jarraiki azoka antolatuko du arratsaldean. Urtero bezala ez dira faltako hotzari aurre egiteko, sagardo, ardo, talo eta gaztainak, dantza eta gabon kantak.

Lasarte-Oriako talogileak jo eta su arituko dira lanean larunbatean taloak erre eta jende artean banatzeko. Eta geroari begira, taloak egiten ikasi nahi duten haurrek, trebatzeko aukera izango dute aurreko urteetan bezala. Taloak egiteko tailerlean ederki pasatzen dute haur eta

gaztetxoek, irinez eskuak zikindu eta gero beraiak egindako taloak dastatuz.

Telleri baserriko txerria ekarriko dute Okendo plaza. Talo eta gaztainak 2,00 eurotan salduko dira eta taloarekin egindako ogitarte-koak 3,50 eurotan.

Arratsaldeko 17:30ean hasiko da egitaraua haurren erromeriarekin. 18:00ak inguruan aterako dira Xumela abestuzkoak Banaiz Bagarakoekin batera plaza inguruan gabon kantak abesteko, gutxi gorabehera 18:30ean Ane Labaka eta Patxi Etxeberria bertsolarien tanda izango da.

Ondoren hasiko da erromeria. Aurten berrikuntzak izango dira eta euskal



dantzeekin batera, munduko beste dantza batzuk dantza-tzeko aukera izango da. Pau-soak irakasteko fin ibiliko dira ohi bezala David Egizabal eta Maider Oiartzabal. Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak egongo dira plazan, plaza dantzako kideak eta Erketzekoak. Amalur-eko musikari eta herriko txistulariak saiatuko dira plazan bildutako herritarrek dantzan jartzen.

Ttakunetik gonbidapena luzatzen zaie herritarrei baserriarrez jantzi eta kalera iten daitezen.



Herritarrak Okendora hurbiltzea da antolatzaileren nahia.



ATERPEAko saltokietan gabonetako sortak zozkatuko dituzte bezeroen artean

Abenduaren 9tik Urtarrilaren 5 era egin Gabonetako erosketak ATERPEAko saltokietan eta eskuratu zozketan parte hartzeko txartelak! Txartel bat, aukera bat!

AKENE ZAPATADENDA
ALBA MODA DENDA
ALDA KONPLEMENTUAK
ARITZA MERTZERIA
ASMAE ZAPATADENDA
ANDATZA TABERNA
ARNUPE TABERNA
TXANPA TABERNA
GURIA TABERNA
ABREU BAZARRA
BIDEO LAGUNAK
BOZAL GERMAN
CANNES
OKELA HARATEGIA
CARREFOUR EXPRESS
ALDAZ HORTZ KLINIKA
NOGUES JANTZIGINTZA
DONNA KONPLEMENTUAK
EKAIN LIBURUDENDA
EL AJUAR DEL BEBE
ARREGUI ELEKTRIZITATEA
SUKOA BURDINDENDA
BETELU GESTORIA
IZARRA BITXIDENDA



GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGUI!

LA DOLCEVITA
LASARTE SYSTEM
ZUMABURU LIBURUDENDA
ZURICH ASEGURUAK
MARTINEZ MULTIMEDIA
MAUXAREN DENDA
MAYA LENTZERIA
OLMI MERTZERIA
URRUZOLA MERTZERIA
NOAOA BIDAIAK
LIZARRI OPTIKA
ORBELA EKODENDA
ORMAZABAL LORADENDA
MAIANE PERFUMERIA
MARTIN BERSATEGI JATETXEA
SANTANA INFORMATIKA
ALCAR LEIHOAK
ISU LEIHOAK
YENTANAS SAN MIGUEL
ITURBE ZAPATADENDA
YOIGO



FUTBOLA

Kolore txuri-urdineko derbia

Texas Lasartearra 4-2 nagusitu zaio Ostadarri I. Erregional mailako partidari

Liga erregularreko azkenurreko partida zuten larunbatean Texas eta Ostadarrek. Txuri-urdinak nagusi izan ziren hasi eta buka. Lehenengo ordu laurdenean hartu zuten bi goleko abantailak amasa eman zien Txema Encinasen mutilei eta Ostadarrek ezin izan zuten markagailua irauli.

TXINTXARRI

Derbiak beti izaten dira ikusteko eta jokatzeko politak, partidako hiru puntu soilez haratago, herrikideari irabaztearen ohorea ere jokatu egoten delako.

Larunbat arratsaldeko neurketan Texas Lasartearra izan zen jaun eta jabe. 10. minuturako txuri-urdinak abantaila hartua zuten Reciok kornar bat buruz indartsu errematatu osten. Bi minutu eskasera, Sergio Pelaezek eskuinetik egindako barnekaldi polita Unai Norriegak probestu zuten markagailuan 2-0koa jartzeko.

Hortik aurrera, lehen zatiko hondarreko minutuetan batez ere, Ostadarrek apenasa eduki zuten baloia eta jokoaeren kontrola Texasena izan zen erabat. Aipagarriak Txurdi Ostadarreko atezainaren geldiketak. Taldea aldagelertara bizirik eramatea lortu baitzuten bere lan onak.

Bigarren zatian suspertuago ekin zioten Belarrietaren mutilek. Lehen ordu laurdena betet-

zeaz zela Unai Iruarte gola egin zuen Urtzik ahoko zuloan utzitako baloia bultzatuz.

Cutxi irauin zien pozak. 60. minutuan penaltia egin eta Sergio Garciak 11 metroetatik ez baitzuen barkatu.

Hiru puntuak Texasentzat izango ziren zalantza zalantza izpirik bazegoen, Sergio Garciak bera berak uxatu zuten partida amaiteko 10 minutu falta zirela Diezen erdiraketa maisuki baliatuta.

Joseba Rekondok txukundu zuten markagailua Ostadarrentzat zuzeneko falta jaurtiketa berrituz batez baloia sareetan ipinitz. Azken emaitza, 4-2koa Texas Lasartearren alde.

Ges-en babes

Bestalde, Ostadar Saiarre Kirol Taldeak eta Lasarte-Oriako Ges Aseguruak beste denboraldi baterako hitzarmena sinatu dute. Hau da, Ges Aseguruak beste urte batez, jada zortzigarrena, Ostadarreko gazteen taldea babestuko du.

Bi entitatek Ges Aseguruak



Partida hasi aurreko argazki ederra. Zelaian etsai eta handik kanpo liguan, Baliteke Kopan argazki hau ez errepikatzea, Ostadarrek gaur bilera du Erregional mailako B taldearen etorkizuna zein izango den argitzeko, litokeena da Kopa ez jokatzeko.

bulegoan, Pablo Muiozabal 2. zenbakian, sinatu zuten hitzarmena. Ostadarreko ordezkariak pozik daude sinatutako hitzarmen honekin, "Ges Aseguruak eskaintzen digun laguntza ezinbestekoa da. Ges gazteen taldeko babeslea izan arren, aldi berean, Ostadarrek burutu nahi duen kirol egitasmoari laguntzen baitio. Modu batera edo bestera, herriko hainbat enpresa eta merkataritza ari zaizkigu laguntzen. Hau ere eskerak eman behar dizkiegure egitasmoan sinistegatik eta urteik urtera gurekin jarraitzeagatik".



Argazkian, Sergio Barquero kapitainia, Miguel Medina entrenatzailea, Peto Esnal Ostadarreko ordezkaria eta Kristina Arzeaga Ges Aseguruetako arduraduna.

TXIRRINDULARITZA

Ziklo-kros eta pistan primeran

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako lagunak pista eta ziklo-kros denboraldietan murgilduak daude.

Asteasuko ziklo-kros proban izan ziren abenduaren 6an eta honetan Iñigo Altuna kadetea laugarren postuan iritsi zen helmugara.

Jubenil mailan ere hamar onenen artean egon ziren txirrindularitza eskolako bi kide. Xuban Errazkin 5. postuan amaitu zuten lasterketa eta bere atzetik Jon Ander Unanue sartu zen helmugan.

Taldeko Imanol Martínez, Luis Sobejano eta Joseba Adurizek ere proba amaitu zuten.

Asteburu honetan Legazpiako proban izan dira eta hurrengo igandean, abenduaren 22an, Ohantzi Gipuzkoako txapelketa dute.



Xuban Errazkin eta Bazpiko gazteak ederki ibili ziren Asteasuko proban. [WWW.GTS.ORG](http://www.gts.org)

Pistan ere ederki

Donostiako belodromoko pistan ere primeran ari dira lanean Bazpiko gazteak. Gipuzkoako Trofeoak hirugarren jardunaldia izan zen abenduaren 7an eta honen ostean, Harkaitz Murillo

junior mailako 3. postuan dago eta kadete mailan Luken Carballeda zazpigarrena da.

Sei jardunaldi geratzen zaizkie aurretik Gipuzkoako txapelketa baino lehen eta pixkanaka Buruntzazpiko lagunak prestaketa finitzen ari dira.

LABURRAK

Urte zahar egunean Buruntza mendira

Ostadar SKT-ko mendi sailak eta Ttakun kultur elkarteak izako esperientzia errepikatuko dute eta abenduaren 31ean, urteari amatera emateko jaia antolatuko dute Buruntza mendian.

Goizeko 10:00etatik aurrera, Buruntzara igotzen diren herritarrek San Rokeko ermitan txistorra eta gazta izango dituzte indarrak berreskuratuz. Giroteko trikixka doinuak ere izango dira.

Ostadar-Oriatik Buruntza mendirako ibilbidea ordu eta erdikoa da; Azkoretetik Buruntzara, aldi, 20 minutu daudela ohartarazi dute antolatzaileek.

Ostadarreko mendi sailak eta Ttakunek herritarrek animatzen ditu urte zahar goizean Buruntza mendira igotzera.

Saskibaloiko 3x3 txapelketarako izena ematea

Ostadar SKT-ko Gipuzkoako Saskibaloiko Federazioa eta Gipuzkoa Basket taldearen laguntzaz, 1. Basket txapelketa antolatuko du urtariraren 4ean. Goizeko 9:00etatik aurrera Okendo plazan 3x3 partidak eta jaurtiketa hirukoitzen txapelketa izango da.

Maila guztietako jokalariek parte hartu dezakete, benjaminetatik seniorietara. Hiruko taldeak antolatuko behar dira eta kapitain bat behar duen. Sariak, afariak eta opariak izango dira parte hartzen dutenentzat.

Jokalarik bakoitzak euro bat jarri behar du parte hartzea ziurtatzeko. Izena ematea Ostadar SKT-ko egoitzan egin behar da abenduaren 20a baino lehen.

— Agenda —

Osteguna 19, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



Gabonetako doinuak

Gabonak ate joka ditugu eta Lasarte-Oriara giroa ekarriko duten lehenak Udal Musika eskolako ikasle eta irakasleak izango dira. Ostegunean Gabonetako kontzertua eskainiko dute Manuel Lekuonan. Musika eskolako instrumentu desberdinen doinuez gozatzear gain, gaur egungo eta doinu klasikoak entzuteko aukera izango da emanaldian.

tzertua eskainiko du. Gabon doinuak eskainiko dituzte.

Santo Tomas jaia

OKENDO PLAZA

Larunbata 21, 17:30etik aurrera

Santo Tomas eguna ospatuko da. Talo eta txistorraz gain, erromeria, Xumela eta Banaiz Bagararen abestiak eta bertsoariak izango dira.

Aniztasun astea

OKENDO PLAZA

Larunbata 21-Larunbata 28

Lasarte-Orain dagoen aniztasuna erakusteko hainbat ekintza antolatuko dira.

Gabonetako parkea

KIROI GUNEKO PILOTALEKUA

Igandea 22-Asteartea 31

Herriko haurrek besteak beste puzgari, bideojoko eta tailerrez gozatzeko aukera izango dute Gabonetako Haur parkean.



Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 15, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Doraemon y Novita Holmes" fantasiako filmaz gozatzeko aukera izango dute etxeko txikiak. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro.

Igandea 15, 19:30etan

Helduentzako zinea, "Las Brujas de Zugarramurdi" filma eskainiko da. Sarrera, leihatilan, 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro.

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 20, 22:30ean

Old Schoonen 14. urteurrena dela eta, El Coleta eta artista gonbidatu baten emanaldiak izango dira. Hip-hopaz gozatzeko aukera aparta. Sarrera 8 euro. Osteen, Dj Pata-ren saioa ere entzun eta dantzatu ahaliko da.

Larunbata 21, 22:00etan

40 urteren ostein, "Los Chichos" taldearen agurra. Rumba filmakoa z



gozatzeko aukera aparta. Sarrera aurretik 15 euro; leihatilan, 18 euro.

Larunbata 22, 23:30ean

Dj Jaularen eskutik, Bass saioa izango da.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 20, 19:30ean

Danok Kide Elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketen saioen barruan, Mari-fe Nogales sopranoa eta Ana Beien Garcia piano joleak ahotsa eta organo kontzertua eskainiko dute. Doan.

Igandea 22, 12:30ean

Alboka Abesbatzak Gabonetako kon-

Abenduaren 29an saribanaketa egingo da.

MEGABAREN MARRAZKI LEHIAKETA

Megaba elkarteak marrazki lehiaketa antolatuko du.

"Gaia "Errege Magoak" da eta 3 eta 12 urte bitarteko umeek zuzendua dago. Marrazki bakarra aurkeztu daiteke eta adimener arabera hiru talde egingo dira. Adin kategoria bakoitzean saritu bat egingo da eta hiru horietatik aterako da irabazlea. Hau Errege Magoak iragartzeko erabiliko den kartelean agertuko da.

Marrazkiak paperezko formatuan A4 taminakoa eta tolestu gabe, erlieberik gabe, izan beharko dira. Umearen datuak jarriko dira atzean baita ama, aita edota legezko tutorearen datu pertsonalak ere, izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa eta harremanetarako telefonoa.

Abenduaren 20a, ostirala da marrazkiak aurkezteko azken eguna Manuel Lekuona kultur-etxeko harreraren jarri den postontzian.

saturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, goizean, 09:00etatik 13:00era.

Sorgin Jaien batzarra

Sorgin Jaien batzarra egingo da abenduaren 23an 19:00etan Gaztelekuan. Honetara etortzeko deia egiten da.

Danok Kideren jaiotza lehiaketa

Danok Kide elkarteak, aurten ere, jaiotzen lehiaketa antolatuko du.

Hauk dira parte hartzeko oinarriak: jaiotzak gehienez, 80x60 zm-ko neu-riak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko hondo sendorik ez duen lanik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko.

Jaiotzarekin gutun-azal batean egi-leen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzi-ta eman behar da.

Jaiotzak aurkezteko egunak abenduaren 20 eta 21a izango dira. Danok Kide elkartearen egoitzan Blas de Lezo kaleko 11 zenbakian utzi beharko dira 17:00etatik 19:00etara.

Gure esku dago taldea osatzen

Elkarlanean lidotik urrats berri eta sako-nak egiteko unea dela deritzogu erabakitzeko eskubidaren alde daudenean.

Horregatik, GURE ESKU DAGO ekimenaren aldeko lan talde txoa osatzen daude. Bilerak ostegunetan egingo dituzte Udaletxe zaharrean, iluzterako 21:30etatik 23:00etara. Ateak irekiak egingo dira taldera sartzeko gogoan duen edonorentzat!

Erketzeko Olentzero ontegu

Erketezko EDI-ko lagunak aurten ere Lasarte-Oriako baserrietara hurbilduko dira Gabon kantak abestera. Ahotsak prestatzeko abenduaren 23an 20:00etan, Zumaburuko ikastokalo lokalean ontegu egingo dute.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, urrezko putzera bat, hiru betaurerako graduatu eta bi txiririnda.

Gauza hauek jabeak direla egiaztatzeko duen herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietaoren bat ikuskatzeko intere-

— Herritarren txokoa —

Eskutitza

Izeba Begoña

Kaixo izeba BEGOÑA!

Ai! Nola esan hainbeste gauza hitz gutxi batuztani! Nola eskertu hainbat alditan zuk luzaturiko bosoa...egun alaietan baina batez ere, momentu zailetan!

Beti entzuteko prest, laguntzeko prest...Nere bizitzako zutabe garrantzitsu bat izan zara eta erreferentzi bezala edukiko zaitut mundu hontan bizi naizen bitartean. Azken solasaldia faltatu zaigu, baina lasai... berriz ere elkar topa egingo dugu eta hitzegingo dugu, esan beharreko gehienak aspaldian esanak bazauden ere!

Izeba, bihotzez...mila esker BETI hor egoteagatik! Ez adiorik, gero arte baiziki!

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Saioa Tolaretxipi

Zirkuitu Musikalاک larunbat gaua girotu du

Multimusikalaren faltan, Zirkuitua antolatu dute formatu txikiagoan

Multimusikalaren jarraipen gisa ulertu daiteke Zirkuitu musikala. Formatu txikiagoan antolatuta, Avenidan, Zulon, Mendi Kafe Rocken, Siglo 20n eta Jalgin estilo ezberdintako musikaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako talde bakarra izan zen The Garax. Avenida jendez lepo ikus zitekeen iluntzean punk bertso ezagunak entzun asmoz. La Polla Recordsetik hasi eta Cicatrizeraino, bertasio abesti laburrak, baina indarrez beterikoak eskaini zituzten eta musikariek ez ezik, publikoak ere ezarria urratu xamar alde egin zuten etxera.

Oso bestelako doinuak entzun genituen Mendi Kafe Rocken, boogie-woogie eta

rock&roll akorde bizi eta dantzagarriak ateratzen zizkion Lee Juniorrek pianoari.

Jalgin metal gogorra izan genuen Devhon talde beasaindarraren eskutik eta Zulon Ras+Urbangrinden gindcorea. Musika gogorraren maitaleek ilaje luzeak aurrera eta atzera mugitzeko aukera izan zuten. Azkenik, Siglo 20n Mr. Kosturaren eta Mr. Kalikutaren afrikar doinuak entzun ziren.

Zirkuitu musikalaren argazki galeria eta bideoa txintxarri.info atarian dituzue ikusgai.



Estilo ezberdinak. entzungai The Garax herritarren punk bertasioak, Lee Juniorren boogie pianoa eta Devhonren metala esaterako.

SALAZAR PROFESIONAL

ILEAPAINDEGIKO ETA EDERTASUNA PRODUKTUJAK

Eguberritarako eskaintza paregabeak



www.salazarpro.net

Geltoki Kalea 15 • Tel.: 943 360211

salazar@salazarpro.net



URTE ZAHAR GAUEAN:

AFARIA

hahituentzako menua 66€

umeentzako menua 30€

KOTILIOI FESTA 35€

Astepe eta birka-mutak barne

ERRESERBAK eta INFORMAZIOA

TEL: 943 019933

eljardinedelacria@yahoo.es

Oria etorbidea 12
20160 Lasarte-Oria

Urtebetetzeko meriendak festak antolatzen ditugu

Ostegunetan PINTXO POTE

ZULO

Asteazkenetik igandera 17:00etatik aurrera

IREKITA

Zulo Asteaz: Hipódromo Etorbidea 11, Lasarte